ORIOKO UDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2025eko urtarrilaren 30a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30 Bukatzeko ordua: 19:48

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Lohitzune Solabarrieta Odriozola zinegotziak, udal honetako EH-Bildu talde politikoko kideak, adierazi du ezin zela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

ORIOKOUDALA

Udalbatzarraren akta
Ohiko bilkura, 2025eko
urtarrilaren 30ekoa Orri-zk. 2

GAI-ZERRENDA

1.- Onartzea, egoki bada, LORRATZ GIZA ELKARTEA enpresak aurkeztutako eskaria, Orioko esku-hartze psikosozial eta sozio-hezitzaileko kontratuaren prezioak berrikusteari buruz, hitzarmen kolektibo berriaren ondorioz.

2.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduari.

3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 1/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, konpromiso-kredituen modalitatean.

4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 2/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, kreditua transferitzeko modalitatean.

5.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruko «Zabalgunea» izeneko 3. eremuko «3.1. Frontoia» jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (%20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzea.

6.- Eskariak eta galderak.

BAT.-ONARTZEA, EGOKI BADA, LORRATZ GIZA ELKARTEA ENPRESAK AURKEZTUTAKO ESKARIA, ORIOKO ESKU-HARTZE PSIKOSOZIAL ETA SOZIO-HEZITZAILEKO KONTRATUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEARI BURUZ, HITZARMEN KOLEKTIBO BERRIAREN ONDORIOZ.

Udalbatzarrak LORRATZ GIZA-ELKARTEA enpresak aurkeztutako eskariaren berri izan du. Eskari horren bidez, Orioko esku-hartze psikosozial eta sozio-hezitzaileko kontratuaren prezioak berrikustea eskatzen du, hitzarmen kolektibo berriaren ondorioz.

Hitzarmen kolektibo berria sinatzearen ondorioz, Orioko esku-hartze psikosozial eta sozio-hezitzaileko kontratuari aplikatu beharreko giza baliabideen kostuak nabarmen igo dira, eta horrek kontratuaren desoreka ekonomiko-finantzarioa ekarri du.

Horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 205.2 artikuluan xedatutakoa betez, bidezkoa da Orioko esku-hartze psikosozial eta sozio-hezitzaileko kontratuaren prezioak berrikustea, hitzarmen kolektibo berria sinatu delako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko urtarrilaren 24an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA LORRATZ GIZA-ELKARTEA enpresak aurkeztutako eskaera, hitzarmen kolektibo berriaren ondorioz Orioko esku-hartze psikosozial eta sozio-hezitzaileko kontratuaren prezioak berrikusteari buruzkoa, eta, horren ondorioz, kontratuaren prezio berria **ONARTZEA** eta urteko 58.711,25 eurotan ezartzea.

Erabaki honek, atzeraeragina izango du, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

BI.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ERREGELAMENDUARI.

Udalbatzarrak Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduaren berri izan du.

Udalbatzarrak, 2024ko urriaren 30ean egindako ezohiko bilkuran, erabaki zuen lehen onarpena ematea Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduari, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, espedientea jendaurrean jarri zen, interesdun guztiek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan zitzaten 30 laneguneko epean.

Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamendua jendaurrean jarri zen 30 laneguneko epean, 2024ko azaroaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (219 zk.)

argitaratutako iragarki baten bidez. Beraz, jendaurrean jartzeko epea 2024ko azaroaren 14an hasi zen, eta 2024ko abenduaren 27an amaitu.

Jendaurreko erakustaldi horretan, 2024ko abenduaren 27an, udal-bulegoetan Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) honako alegazio hauek aurkeztu zituen (sarrera-erregistroko 4463 zenbakia du idazkiak):

1. alegazioa

13. artikuluak dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskubideak arautzen ditu, eta, alde horretatik, adierazi behar dugu terminologia ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

Hala, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinaren bidez desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen den, 4. artikuluan ezartzen du botere eta administrazio publikoen arau-xedapenek, haien ebazpenek, egintzek, eta komunikazioek, eta haien agintaritza eta agente gisa jarduten dutenean egindako adierazpenek “desgaitasuna duen pertsona” edo “desgaitasuna duten pertsonak” terminoak erabiliko dituztela.

Beraz, araudian "dibertsitate funtzionala" terminoaren ordez "desgaitasuna duen pertsona" terminoa erabiliko da, eta, ondorioz, "desgaitasuna duen pertsona" terminoa erabiltzea proposatzen da.

2. alegazioa

13. artikuluak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzen ditu, eta, horrenbestez, honako eskubide hauek gehitzea proposatzen dugu:

c) Irisgarritasun unibertsalaren arloan indarrean dauden arauak bermatzea, instalazioak, ekipamenduak eta zerbitzuak baliatzea, eta beharrezkoak diren laguntza-produktuak erabiltzea.

d) Zerbitzuko langileen beharrezko laguntza pertsonala ematea, kirol-jarduera bera zein jarduera instrumentala egiteko (joan-etorriak instalazioetan, aldageletan, janztea eta eranztea, dutxa, etab.).

e) Kirol-jarduera segurtasun-, irisgarritasun- eta berdintasun-baldintzetan egitea, une oro behar den laguntzarekin eta askatasunez aukeratuta.

Bestalde, instalazioak igogailua duenean, hura erabiltzeko eskubidea 13 b) artikuluan jasotzen da, eta, beraz, eskubide hori askatasunez baliatu behar da, giltza eskatu beharrik gabe, adibidez.

3. alegazioa

Beste Azken Xedapen bat gehitzea proposatzen da:

"Erregelamendu honetan aipatzen diren instalazioek eta zerbitzuek pertsona guztientzako diseinuaren arloan indarrean dauden arauak beteko dituzte, eta desgaitasuna duten pertsonentzako beharrezko laguntza-produktuak daudela bermatuko da.

Era berean, bermatuko da zerbitzuko langileak kualifikatuta daudela eta horretarako zehaztutako profil profesionala dutela, hala badagokio, desgaitasunen bat duten pertsonei laguntza pertsonala emateko, bai kirola egitean, bai jarduera instrumentaletan ere (instalazioetan joan-etorriak, aldageletan janztea eta eranztea, dutxa eta abar)".

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2025eko urtarrilaren 17an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- OSOTASUNEAN ONARTZEA Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) aurkeztutako alegazioak, eta, ondorioz, **BEHIN BETIKO ONARTZEA** Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamendua, aipatutako alegazioak txertatuta, Udalbatzarraren erabaki honen azalpen-zatian adierazitako baldintzetan.

2.- ARGITARATZEA Orioko Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko erregelamenduaren behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, indarrean sar dadin, GAOn argitaratu eta 15 laneguneko epea igarotakoan.

HIRU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 1/2025 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI, KONPROMISO-KREDITUEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 1/2025 zenbakidun espedientea konpromiso-kredituen modalitatean egina dago eta **340.000** euroko zenbatekoa du, 2025, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldi ekonomikoen kargura.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko urtarrilaren 24an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 1/2025 zenbakidun espedienteari. Konpromiso-kredituen modalitatean egina dago eta **HIRUREHUN ETA BERROGEI MILA EUROKO (340.000)** zenbatekoa du, 2025, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldi ekonomikoen kargura.

2.- JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

LAU.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2/2025 ZENBAKIDUN KREDITU-ALDAKETAREN ESPEDIENTEARI, KREDITU-TRANSFERENTZIA MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakin du. Udalaren aurrekontu propioaren 2/2025 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **68.000 euroko** zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko urtarrilaren 24an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 2024ko ekitaldi ekonomikoko 4/2025 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta zenbateko hau du: **HIRUROGEITA ZORTZI MILA (68.000€) EURO.**

2.- JENDAURREAN JARTZEA adierazitako espedientea, arlo horri buruz indarrean dagoen araudia betez, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailetza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluak zerrendatzen dituen interesdunak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Lehen aipatutako foru-arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Inaxio Alguacil zinegotziak hartu du hitza, EH-Bilduren izenean eta ordezkaritzan, eta adierazi du udalbatzar honetan krediduak aldatzeko onartutako bi espedienteak testuinguru egokian kokatu nahi dituela, eta ez modu isolatuan, eta azpimarratzekoa dela beharrezko aurrekontu-partidak gaitu direla, 2025, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldi ekonomikoen kargura, Orioko Karela kiroldegirako hainbat kirol-material finantza-errentamendu erregimenean hornitzeko eta instalatzeko kontratua finantzatzeko.

BOST.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BARRUKO «ZABALGUNEA» IZENEKO 3. EREMUKO «3.1. FRONTOIA» JARDUKETA UNITATEKO 1.1. PARTZELAREN PARTAIDETZA ZATIEZIN BAT (% 20,32) LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ BESTERENTZEA.

Udalak espedientearen berri izan du. Espedientea Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruko «Zabalgunea» izeneko 3. eremuko «3.1. Frontoia» jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (% 20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzeko da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2025eko urtarrilaren 10ean emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- ESLEITZEA ERAIKIRU S.L (CIF: B56207855) merkataritza-erakundeari, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruko "Zabalgunea" izeneko 3. eremuko "3.1. Frontoia" jarduketa-unitateko 1.1. partzelaren partaidetza zatiezin bat (% 20,32) lehiaketa publiko bidez besterentzea klausula partikularren pleguetan ezarritakoari jarraituz, eta enpresa esleipendunak berak aurkeztutako proposamenean adierazitako baldintzetan. Hau da:

Frontoia estaltzea:

Frontoia (gutxi gorabehera 18 x 12 metrokoa) estaltzea, honela: zur ijeztuzko egiturak (zutoinak, habeak, habeak, habexkak/txarrantxak) eta inoxeko tiranteak; altzairu galbanizatu margotuzko sandwich-panelez eta polikarbonato zelular zeharrargizko plakez osatutako estalkia; altzairu galbanizatu pintatuzko erretenak eta zorrotak, eta saneamenduarekin konektatuta.

270m^2 x 900 € l m^2=**243.000 €**

* Estalkiaren azalera

- Frontoiaren argiztapena, led foku erregulagarrien bidez, baita aginte-koadroa ere, piztea programatzeko aukerarekin: **35.000 €**

- Beheko solairuko lokala erostea: eraikitako 100m^2 x 1.300€/m^2 = **130.000€**

- Lokala gaitzea (gres portzelanikozko zoladurak; sabai erregistragarria; hormetako, sabaietako eta zoruetako isolamendu estandarra; instalazio elektrikoa; fatxadak; arotzeria; bainugelak, alikatatuak eta ekipatuak; guztiz pintatua-akabatua, airea berriztatzeko eta girotzeko instalazioak izan ezik) 100 x 900 €/m^2 = **90.000 €**

- Udal-erabilerarako lokala, komun publikoa gaitu ahal izateko: 15,78 m^{2}x 1.300 € = **20.520 €**

Horrek guztiak enkante hori arautzen duen lizitazio-oinarria osatzen du, eta **518.520 €**-koa da.

Arestian aipatutakoaz gain, **Eraikiru SL** enpresak konpromisoa hartzen du aipatutako elementuetan honako hobekuntza hauek egiteko:

- Beheko solairuko lokala erostea: Lizitazio-oinarrian baino 1,46 m^2 gehiago emango dira eraikita. 1,46 m^2x 1.300 € / m2= **1.898 €**

- Lokala gaitzea (gres portzelanikozko zoladurak; sabai erregistragarria; hormetako, sabaietako eta zoruetako isolamendu estandarra; instalazio elektrikoa; fatxadak; arotzeria; bainugelak, alikatatuak eta ekipatuak; guztiz pintatua-akabatua, airea berriztatzeko eta girotzeko instalazioak izan ezik). Lizitazio-oinarrian baino 1,46 m^2 gehiago gaituko dira: 1,46 m^2 x 900 €/ m^2= **1.314 €**

- Udal-erabilerarako lokala, komun publikoa gaitu ahal izateko: Guztira 27,52m^2-ko lokal bat ematea planteatzen da, komuna gaitzeko; beraz, lizitazio-tasan baino 11,74 m^2 gehiago emango dira. 11,74 m^2x 1.300 €/m^2= **15.262 €**

Hobekuntza guztien batura **18.474 €**-koa da, eta lehiaketa honen baldintza-agirian zehaztutako lizitazio-tasari gehituko zaizkio.

Horrenbestez, **Eraikiru SL**-k eskaintzen duen zenbateko osoa, lizitazio-tasa eta hari egindako hobekuntzak batuta, **BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMASEI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EUROKOA (536.994 €)** da.

2.- AHALMENA EMATEA toki-korporazioko alkate-udalburuari, **ERAIKIRU SL** merkataritza-sozietatearekin salerosketako eskritura publikoa sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz.

SEI.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita zortzi direla. Nik, Udaleko idazkariak, ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.

ALKATE-PRESIDENTEA, **IDAZKARIA,**